HABE

G23/216 ESPEDIENTEA - SISTEMA DINAMIKOA: HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO CURRICULUMAREN ARABERAKO EUSKARA-IKASTAROAK EMATEKO ZERBITZU-KONTRATAZIOA.

G23/216.5 LIZITAZIOAREN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1.- IKASTAROAREN EZAUGARRIAK

Ondoren zehazten dira lizitazio honen bitartez kontratatuko den Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren araberako euskara-ikastaroaren ezaugarriak.

SORTAK	HIRIA	TOKIA	ORDU-KOPURUA	IRAUPENA	MAILA
1. SORTA	ZABALLA	Administrazioaren lokaletan	60	2024/04/08-2024/07/24	B1
2. SORTA	ZABALLA	Administrazioaren lokaletan	60	2024/04/08-2024/07/24	B1
3. SORTA	ZABALLA	Administrazioaren lokaletan	60	2024/04/08-2024/07/24	B1
4. SORTA	ZABALLA	Administrazioaren lokaletan	60	2024/04/08-2024/07/24	B2
5. SORTA	ZABALLA	Administrazioaren lokaletan	60	2024/04/08-2024/07/24	C1
6. SORTA	ZABALLA	Administrazioaren lokaletan	60	2024/04/08-2024/07/24	C1
7. SORTA	ZABALLA	Administrazioaren lokaletan	60	2024/04/08-2024/07/24	C2
8. SORTA	ZABALLA	Administrazioaren lokaletan	60	2024/04/08-2024/07/24	C2
9. SORTA	BASAURI	Administrazioaren lokaletan	62	2024/04/08-2024/07/24	C1
10. SORTA	DONOSTIA	Administrazioaren lokaletan	62	2024/04/08-2024/07/24	A1/A2
11. SORTA	DONOSTIA	Administrazioaren lokaletan	62	2024/04/08-2024/07/24	C1

Orain arte eskuratze sistema dinamikoan esleitutako orduak:

G23/216.1 Irale: 6.800 ordu. 1. kategoriakoak:

-5.100 ordu Bilbon.

-850 Gasteizen

-850 Donostian

G23/216.2 IVAP: 6.826 ordu

-4.126 ordu (1. Kategoria)

2.002 Bilbon eta 2.124 Gasteizen

- 2.700 ordu (2. Kategoria) Gasteizen.

G23/216.3 Segurtasun Saila: 7.872 ordu, 2. kategoriakoak guztiak.

- Erandio eta Iurretan, 4.368 ordu
- Arkautin, 1.830 ordu
- Oiartzunen, 1.404 ordu.

G23/216.4 IVAP: 435 ordu, 1. kategoriakoa.

-Bilbo 435 ordu.

GUZTIRA esleitutako orduak:

Bilbo: 5.100 + 2.002 + 4.638 + 435 = 12.175 ordu

Gasteiz: 850 + 2.124 + 2.700 + 1.830 = 7.504 ordu

Donostia: 850 ordu + 1.404 ordu = 2.254 ordu

Orain esleituko diren orduak (G23/216.5 Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Saila. Espetxeak):

Araba. Zaballa: 60 orduko 8 ikastaro

60 x 8 ikastaro = 480 ordu.

2. Kategoriakoa (Administrazioaren lokaletan)

Bizkaia. Basauri: 62 orduko ikastaroa

62 x 1 ikastaro = 62 ordu.

2. kategoriakoa, hau da, Administrazioaren lokaletan.

Gipuzkoa. Martutene.

62 orduko 2 ikastaro.

62 x 2 ikastaro = 124 ordu.

GUZTIRA: 666 ORDU.

2.- HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO CURRICULUMA ETA IKASLEEN EBALUAZIOA

Kontrataturiko jardunaren prestazioak Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma izan behar du oinarri.

3.- LAN-MARKOA

Arauemailea

- Uztailaren 22-ko 179/2003 DEKRETUA, helduen euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jarduera eta horien finantzazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik arautzen duena. (EHAA 149. zk., 2003-07-31)
- 2015eko uztailaren 22ko AGINDUA, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma (HEOC) ezartzen duena. (EHAA, 2015-07-31)
- 2015eko abuztuaren 3ko EBAZPENA, HABEren zuzendari nagusiaren, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren mailen azpimailak zedarritu eta ikas-irakas prozesuen eraketa, jarraipena eta kudeaketa didaktikoaren jarraibideak ezartzen dituena.
- 2020ko irailaren 9ko AGINDUA, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituena, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituena, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko urriaren 20ko AGINDUAren bidez aldatutakoa.
- HABEren zuzendari nagusiak 2024ko egiaztatze-deialdien antolaketarako onartzen dituen oinarriak eta 2023-2024 ikasturterako ikasturte hasieran ematen dituen jarraibideak.

Curriculum-erreferentziak

- HABE (2015): Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma. Donostia.
- Europako Kontseilua (2005): *Ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako erreferentzia markoa*. Donostia: HABE. (Jatorrizkoa: Europako Kontseilua (2001) *Common European Framework for Languages; Learning, Teaching, Assessment*. Education Committee. Language Policy Division, Strasbourg.)

4.- IKASLEEN JARRAIPENA

HABEk kontrataturiko ikastaroetako ikasleen jarraipena egingo du, kontratistarekin antolatuko dituen jarraipen-bileren bitartez. Horretarako, kontratistak, aldez aurretik, ikasleen asistentzia eta ebaluazioa eguneratua izan beharko du.